



Ormaiztegui Udala

Enplegu Eskaintza Publikoetan parte hartzen duten emakume haurdun eta erditu berrientzako neurriak (baita haurren edoskitzeaz arduratzen diren gurasoentzako), IVApek emanak.

Irizpide nagusia: Neurriek, nolana ere, ez dute berdintasun printzipioa kaltetu behar eta irizpide horrekin aplikatu behar dira.

Moldaketarik beharko duten adierazteko eskatzen zaie kasu honetan egon daitezkeenei.

Irizpideak:

- Emakumea erditu ez bada eta osasun arazorik ez badu, guztiekin batera egin beharko du azterketa.
- Medikuaren aginduz etxean gelditu behar bada, epaimahaikide bat joaten da bere etxera azterketaren egunean eta proba guztien egun eta ordu berean egingo du baina etxean. Berdin jokatu dugu ospitalean ingresaturik badago.
- Ingresatuta egoteaz gain ez badago azterketa egiteko moduan, beste egun batean egin liteke proba. Kasu honetan ezin da erabili proba bera eta zailtasun maila bereko beste bat erabili beharko da. Beste egun batean egitea azken irtenbidea izan behar da, beste aukerarik ez badago.
- Arazoa bada bularra eman behar duela, gauzak prestatuko ditugu aukera hori izan dezan. Emakumeak epaimahaiaren esku telefono bat uztea komeni da eta haurrak jan behar baldin badu, harekin dagoen pertsonak telefono horretara deitu behar du eta hautagaiari utziko diogu leku eroso batera joaten bularra ematera (aldez aurretik prestatu dugun leku eroso batera). Bularra ematen erabiltzen duen denbora gehituko diogu azterketa-denborari.

Ondo iritzita, Ormaiztegui Udalak bere egiten ditu irizpideak 2020ko Enplegu Eskaintza Publikoaren barneko hautaketa prozesuan ezartzeko, Epaimahaiak besterik ebatzi ezean.

Ormaiztegin 2020ko uztailaren 23an.

Alkateak,

JON ENRIQUE GALARZA

